

POLITIKA ETA AMORRAZIOA

Aurrekoan esaten nuen, astiro-astiro zaharrak geruz eta mundu zaharragoarekin, eta berriak berriaren berriz ia atzori gabeko, historiari gabeko, mundu guziz «berriarekin», gelditzen ari zirela Euskal Herrian. Bi mundu altxatzen ari zirela bata bestearen aldamenean, elkarrekiko mediaziorik eta komunikaziorik gabe. Onenean ere, elkar kritikatzeko komunikazioarekin bakarrik. Gehiago ez.

Gerra aurretik zetozen haien eta idazle berrion poesia konparatu besterik ez dago, bakoitza bere bideetik, elkarri eragin gabe, zebilela ikusteko. Hori adibide moduan. «Lizardi, Orixe ta Lauaxetaren bideeri jarraitu naian dijoaz», esaten zuen 1964-ean San Martinek euskaldun poeta gehienengatik (uhin berria agertu zuen uanean): «landutako lurra goldeatzen». Denok dakigu, zein bestelako bidetatik joan den gerozko poesia (berria): lizardismotik konzientzi aparatuz.

POLITIKA DELA-TA

Baina denok dakigu, halaber, literatur-arloak kulturaren hesparru zabalagoan jarri behar direla. Eta kulturaren hesparrua bera, gure kondizioetan batez ere, bizitza politiko eta sozialaren barrutian. Guzakio edozeinek onartuko bait luke «la dominance d'une région de l'idéologie sur les autres régions» (N. Poulantzas): politikaren nagusigoa, hain zuzen.

Edozein euskal idazlek daduka, nik uste, politika dadukan nagusigoaren kontzientzia. Egunotan, batzuk, hori oraintxe deskubritu balute bezalatsu mintzo zaizkigu: Haranburu-Aituna (Mitxeleneri erantzuna), Osa (Pedagogia eta Gizarte, etc.) eta beste zenbait. Lehenago berdin-berdin egiten zuen Txillardegik. Eta uste dut beraz izan dugula, gerra ostean, gure haiz kulturaren egiazko karkoa politikan dagoela, erakusten, gehien lehiatu dena. Ongi da, hori behin eta berrigo gogoratzea.

Baina ez dago pentsatzerik, lehenagokoak hortaz akordatu gabe zudenik. Hortaz, Txillardegik edo Osa bezain ongi ohar-hartuta dago Arentza, eta aranisimo guziaz dago kontzientzia hori gabe esplikatu. Hortaz, Txillardegik edo hen-lehenengo aldiz kontzientzia horie lortzea besterik ez da, funtsean, aranisimo guzia. Euskal kulturaren aldetik begiratuta.

Hain zuzen horixe da, prozesoa normala izan balitz, gurasoengandik gazte edo berrietara pasatu beharko zukeen gauza bat. Orduan, kontzientzia horren aldatzeak ezagutu izango genituen, baina ez «deskubrimendurik»: Mediterraneoaren deskubrimenduak balizik ez bait dira.

Halare, puntu honetan bada diferentzia importante bat, hazaldi zahararen eta berriaren artean. Gerra ondoko euskal gizartean, politika eta kultura, aski diferentziatu gabe daude. Alegia, ongi moldaturiko edozein gizartetan daude diferentziatu praktikoki batzuk, funtzional eta operazionalak, ez printzipioak. Eta horietako bat da, kultur-arloaren eta politi-

karen diferentziapena. Zaharragoez hori ezagutu dute, eta askok oraindik ere horixe segitzen diote. «Apolitikoa» kasu agiri bat, Aita Villasante dugu, esaterako. Baina horrek ez du esan nahi, kulturaren lotura politikoen kontzientziarik ez daduketarik. Neurri praktikoki bat da, beharbada gure egoeran asko balio ez bada ere. Gutierrez, jeneralizatzerik ez dagoela, esango nuke. Hesparru konkretu batzuentzat posible ezezik, komeingarririk ere bada, dudarik gabe. Beste batzuetan ez dirudi hain komeingarririk, eta doi-doi posible ere. Euskal fonetika aztertzerakoan, hobe da intentzio politikorik gabe ibiltzea; alfabetatzeko kanpaina planteatzea, zailago izango da, politikaririk batera gabe; eta ikastolak muntatzea, ezinezkoa izango da, politikaririk bat egin gabe. Kasu bakoitzean tamaina hartzen jakin behar.

Kultur-jangile zaharrak, halaxe oihututa zeudelako, eta euskeraren alde lan egiteko, beste biderik aurkitzen ez zutelako ere, lanbide «apolitikoak» sortzen saiatu ziren gerra ondorenean. Arrazoiozko zen. Arrazoiozko diren bezalaxe, goian aipatutakoak deiak politikan sartzea.

Hazaldi berriak, berriz, gizarte totalitario batetan hazi bait da, eta gizarte (edo mentalidade) totalitarioaren ezaugarri bat diferentzialaren funtzional horietzek xahutzea eta dena totalidade batetan integratzea bait da, ia ez du idazlearen eta politikoaeren diferentziapenik uzten.

«DENA POLITIKA DA»

Diferentziapen falta horrekin, dena politika soilik batilten da. Hau da, Poulantzasek dion surpolitisation hura, gertatzen da.

Horrela, idazlek, bestela edukiko ez litzukenean egin behar politikoa, bere gain hartu behar ditu. Hori gertatzen zaiguna bistan dago. Baina horrela, politikako eta kultur-arloetako arazoak gehiago nahasten dira, ezinbestean. Horrek sortzen dituen karamila guzietatik ez politikoa zuzenik eta ez kultur-



lan zuzenik egin daiteke, dena nahasian balizik. Kulturari ez zaio autonomiarik ezagutzen, dena politika izan behar du. «Nulle autonomie spécifique ne peut, par conséquent, être reconnue à l'instance idéologique» (instanzia literario, filosofiko, edo beste), kritikatzeko du Poulantzasek ikuskeria funtsean lurtasano hori. Honela totalidadeak hartzen duen indarrekin, pluralismoarentzat de facto ez da lekurik gelditzen. Denak bat izan behar du. Edozein aldetatik begiraturata, beti gauza berbera da. Teologia, soziologia, historia, pedagogia, edo beste edozein gauza egin, beti gauza berbera egiten da.

Gure egoeran, diferentziazio askorik gabe jardun, beste erremediorik ez dago; eta ongi dagoela, horrelaxe jardutea, esan beharko dugu. Baina ontasun eskasa eta tragikoa dugula hori, ezin ahantz genezake.

Arrisruk bete dagoela, batez ere. Eitika guziaz politikakara erreduzitza, esaterako, arrisruk gehiegiri jotuta dago: totalitarismo guzian oinarritzko harria ez da horixe besterik izan, faxismoaren bezalaxe stalinismoaren. Beraz, Haranburu-Aitunak erreduzio hori entseiatu nahi badu («nietzako etika, politikaren aurpegi bat baino ez da»), arrisruk horrekin konatu beharko du.

Pedagogia politika baten tresna bihurtu nahi denean ere, eta berdin da hori eskuindarrek ala ez kertiarrak egin, ez da asko falta, Poulantzasek salatzen duena gertatzen: ideologiako eskualde («région») ezberdinen autonomia erlatiboa itotzeko. Eta Marcusek salatzen duen pentsakera «dimensio-bakarrean», «totalistan», erortzeko. Ta gozoan eduki behar da, pentsakera totalista, pentsakera totalitarioaren atera dela.

Nolanahi den, arriskuak seinaltatu, ez dut arriskuak seinaltatu beste ezer egin nahi. Ez dadukagu ahazterik, gauden egoeratik irtezeko, edonola ere arrisruen artean mugitu beharko dugula. Eta guziorik hori. Beharbada, halare, esajerazio denak ez dira ezinbestezkoak.

POLITIKA ETA AMORRAZIOA

Praktikan, eta eskuinean postura hori eskerrean baino gutiago teoriatu bada ere, postura horrek jeneraldur samarra dirudi: dena politikakara erreduzitza, alegia. Batzutan horretarako instituzio batzuen neutralidade politikoa komeni zaigula, esanez, arrazonatzen bada ere.

Areago, hazaldi berria, bakoitzak dena egin beharrean aurkitu da: inbestigazio piska bat, periodismo piska bat, kultura piska bat, politika piska bat. Eta dena presaka. Honak ere nahastean dugu, gura go apatzen nuen diferentziapen falta hura.

Ta arrazoi askogatik oinarritzko nahastendu horrek berekin beste zentzat nahastendu dakarren, egunoro ikusten dugu. Edozein problema tipik, mila problemaren zurrumbilo bildurgarria sortzen du.

Gainera kultur-lan guziaz bi mailatan batera mugitzen da: kulturalean eta politikoa. Eta gure eginizun kulturalean ilunbe asko badugu, ez dadukagu gutiagopolitikoa. Biok bateratuta, gure gau beltza ematen dute.

Bestela zaila bazen, horrela are zailagoa da, gure problemetan argi egitea. Denetik egin beharrean hasi zen belaualdi berriak, dena batera lortu nahi duela, ematen

du askotan. Ta politika radikalekara jotzen du: ez dut hemen teoria radikalekara esan nahi, espada jekabide radikalekara, zeharoketara. (Teoriak ere praktika baten parte bait dira). Hori politika da. Baina politika da, orobat, zaharrago asko bildur bada, radikalismo horiekin duguntzua ere hondatu egingo dugula, ta ezer ez irabazi. Gure egoera berez dagoen baino ere nahasiago eta zailago bihurtzen ari gara.

Simplifikatuz esango nuke, ba: batzuen radikalismoak besteak radikalatu eta haserretu dituela. Eta dialektikoki elkarri eraginez, alderdi bak amorratioaren faserara ailegatu dira. San Martini oraintxe irakurtzen diodanez: «Muttur bateko eta besteke integrismoak ere inoluz baino biziago daude; eta honek ere bere alde onak eta txarrak ditu. Arrisrugarriak batez ere».

Homen ez dugu kansa guzian azterketa zehatzik egin (hori azterketa sakonago batentzat uzten dut), baina ikusten da, nola belaualdi nagusiaren eta gastearen artean, diferentziatetik kontradizioetara ailegatzen den, eta kontradizioetan amorratio giroa sutan jartzen.

Azken finean, haserre eta amorratio dira nagusi euskal politika kulturalean. «Abere gaiztoa da go-protota».

Jose Azurmendi

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutzikiñak:

Etxekoa 95 19 60

Landolako 65 19 33

URRETXUA

Urrutzikiñak:

Landolako 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7^o

DEPURACION DE AGUAS S. A.

Ur lanetan eta zereginetan berezia edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 60 - 31 00 10 - 32 37 01
Gordoriz, 44

BILBAO

